Oharrak: Behe aldetik; goitik, bidea doan lekuan, etxe parean, Txakarreneko erreka, Jose Arozena. Beheko aldean Muliatego errekaekin bat egiten du.

Txiplaoko larrea

Kontzeptua: Lursaila

Ebakera: 1992: *Txiplauko larria* Jose Angel Sorzabal

Adierakideak: *Larrea*

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: Javier Galarza Txiplaokoak *Larria* deitu zuena.

Txiplaoko portua

Kontzeptua: Portua

Iturriak: 1987: *Txiplauko-portua* Por. VIII (504. or.)

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: Elo.k adierakidea ematen du: "Txorineko portua".

Txiplaotxiki

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1857: *Chipláu-chiqui* Nomen. (42. or.)
1865: *Chiplan-chiqui* Reg. 4 (79. or.)
1888: *Chiplao-chiqui* Reg. 24 (164. or.)
1945: *Chiplau-chiqui* Amil. (170. or.)
1986: *Txiplau Txiki* Ond. (159. or.)

Ebakera: 1992: *Txiplau txiki* Jose Agirre
1992: *Txiplau ttiki* Domingo Olazabal
1992: *Txiplau txiki* Jose Alkiza
1992: *Txiplau txiki* Celedonia Ugarte

Adierakideak: *Txiplaotxikikoa?*

Kokagunea: 41.50.6

Txiplaotxikiazpi

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1943: *Chiplau-chiki-azpi* Reg. 38 (218. or.)

Oharrak: “en el punto conocido con el nombre de *Chiplau-chiki-azpi*” Reg. 38.

Txiplaotxikikoa

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1787: *Chiplao chiquicoa* B-2-II-1-1

Kokagunea: 41.50.6?

Oharrak: Ik. *Txiplaotxiki* fitxa.

Txiritanekoa

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1656: *chiritanecoa* (31. or.) / Sancho de Unça, casa llamada (5. or.)
E-7-I-13-6

Adierakideak: *Sancho Untza*

Kokagunea: Alde Zaharra

Oharrak: “(casa) en la calle de sistun” (78. or.). Mugak: “la cassa llamada de leyça... y por la parte detras la muela o calleja que sale al pozo llamado el chapittel” (5. or.). Izenaz zera dio: “por mal nombre *chiritanecoa*” (31. or.) E-7-I-13-6.

Txirrista

Kontzeptua: Lekua

Ebakera: 1993: *Txirrista* Manuel Etxebeste

Kokagunea: Alde Zaharra

Oharrak: Elizaren hormek txirrista antzeko bat egiten dute, umeentzako jolasleku eta bilgune gustukoa omen zen, Manuel Etxebeste.

Txitxarroarri

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1993: *Txitxarroarri* Maximo Sagarzazu

Oharrak: *Plantain aundi* eta *Fandangoarri* artean, Maximo Sagarzazu.

Txitxeriaundi

Kontzeptua: Etxea

Ebakera: 1992: *Txitxeri aundil* Txitxeri Ramon Lizarraga

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: Ik. *Chichei*.

Txitxeritxiki

Kontzeptua: Etxea

Ebakera: 1992: *Txitxeri txiki* Ramon Lizarraga

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: Berez, beste izen bat omen du (ez zen oroitzen), baina *Txitxeri txiki* esaten omen zaio, Ramon Lizarraga. Gure ametsari deitu zion horrela. Ik. *Gure ametsa*. Ik. *Chicheri*.**Txokoarri**

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1993: *Txokoarri* Pascual Arroyo

Kokagunea: 41.42.3

Oharrak: Buruaundi duguna hau bera izan daiteke, eman zigun azalpenarengatik. Amuitzen eman zigun eta alderdi horretan. Bada Otxokoarri fitxa.

Txokolako erreka

Kontzeptua: Itsasbazterra

Ebakera: 1992: *Txokolako erreka* S.Zunzundegi
1993: *Txokoko erreka* Maximo Sagarzazu
1993: *Txokolako erreka* Jose Ezeiza

Kokagunea: 41.42.1

Oharrak: Bi harriren artean erreka bezala egiten omen du. Maximo Sagarazuk *Erretxiki* eta *Plantainundi*-ren artean kokatu zuen errekastoa, baina kostako izena bezala zeukan. Simon Zunzundegik arrokari deitzen ziotela esan zigun, eta farola alderago erakutsi zigun argazkian. Xaxiarriren ondo-ondoan eta Erretxikitik alderaxeago. Erretxaundi, Errutillo, Xaxiarri eta Txokolako erreka bata bestearen ondoan dira.**Txokotxiki**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1922: *Txoko Txiki* Reg. 41 (196. or.)

Kokagunea: Portua

Oharrak: "calle San Pedro... casa nº 8" Reg. 41. "sur o frente Casino Miramar" Reg. 43 (1928, 238. or.).

Txomin

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1945: *Chomin* Amil. (289. or.)Ebakera: 1992: *Txomiñ* Ignacio Manterola

Kokagunea: 41.49.4

Oharrak: Amil.en muga bezala darabilte, besteak ikusirik badirudi baserria adierazi nahiko zutela. Ik. *Txomiñenea*.**Txominborda**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1913: *Chomimborda*, caseria Reg. 37 (139. or.)
1945: *Chomin-Borda* Amil. (73. or.)

Txomiñenea

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 17(?): *Chominenea* (punto) D-10-1-5
18(?): *Chominenea* C-5-II-8-1

Kokagunea: 41.49.4?

Oharrak: “la conduccion de la (agua) que existe en los puntos Mendañenea y *Chominenea* a la falda de Guadalupe” C-5-II-8-1.

Txomiñenea

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1639: *Chominea* Aktak 35 (24. or.)
1691: *chomiñenea* E-7-II-14-8 (4. or.)
1769: *Chomiñenea* E-7-I-73-1 (45. or.)
1782: *Chomiñaenea* (16. or.)/ *Chomiñanea* (21. or.) E-7-I-79-6
1857: *Chomiñenea* Nomen. (42. or.)
1869: *Chomiñenea* Reg. 9 (186. or.)
1897: *Chomiñenea* C-5-II-7-4
1915: *Chomiñenea* Reg. 24 (34. or.)
1919: *Chomiñenea* C-5-II-10-2 (Límites)
1945: *Chominenea* (4. or.)/ *Chomiñenea* (320. or.) Amil.
1986: *Txomiñenea* Ond. (81. or.)

Ebakera: 1992: *Txominrena* Meliton Errazkin
1992: *Txominea* Teodoro Otegi
1992: *Txomiñenea* Pedro Sagarzazu
1992: *Txominea* Ramon Balerdi

Adierakideak: *Txomin*

Kokagunea: 41.49.4

Oharrak: “Barrio de Santiago” B-2-II-1-1.

Txomiñeneko aldapa

Kontzeptua: Lekua

Ebakera: 1992: *Txomiñeneko aldapa* Jose Angel Sorzabal

Kokagunea: 41.49.4

Oharrak: Ik. *Txomiñeneko malda*.

Txomiñeneko erreka

Kontzeptua: Erreka

Iturriak: 1894: *chomineneco-erreka* D-7-1-8
1930: *Txomiñeneko erreka* D-9-1-6
1975: *Txomiñeneko-erreka* (manantial) Por. II (612. or.)

Ebakera: 1992: *Txomineko erreka* J. Julian Olamusu
1992: *Txomiñeko erreka* Juanito Gonzalez

1992: *Txomineko erreka* Teodoro Otegi

1992: *Txomineko erreka* Ramon Balerdi

Adierakideak: *Txomiñerreka?*

Kokagunea: 41.49.4

Oharrak: “carretera... desde *chominenco-erreca* a Miquelenea” D-7-1-8. “Nombre del manantial o del paraje en que nace” D-9-1-6.

Txomiñeneko harrondoa

Kontzeptua: Harrondoa

Ebakera: 1992: *Txomiñeneko arrondua* Florencio Arrieta

Oharrak: Harpe modukoa omen da.

Txomiñeneko iturria

Kontzeptua: Iturria

Iturriak: 1876: *Chomiñenea*, fuente de Por. VI (656. or.)

Ebakera: 1992: *Txomiñeneko iturriya* Jose Alkiza

Kokagunea: 41.49.4

Txomiñeneko malda

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1885: *Chomiñeneko maldan* Por. (Gua.) (107. or.)

1975: *Chomiñenea*, cuesta de (camino antiguo) Por. V (295. or.)

Ebakera: 1992: *Txomineko malda* Javier Galarza

1992: *Txomiñeko malda* Juanito Gonzalez

Adierakideak: *Txomiñeneko aldapa*, *Kalbariobidea*, *Kalbarioetako malda*, *Santa Barbarako malda*, *Txomiñeneko zidorra*

Kokagunea: 41.49.4

Oharrak: “Guadalupeko Elizachora meza ematera zijoala... *Chomiñeneko maldan*, Kristoren Pasa deritzayon lekuan” Por. (Gua.). “Ermita conocida por el nombre de ‘Santa Barbara’, situada en el camino antiguo *cuesta de Chomiñenea*... En el frente de la Capilla, tres Cruces, terminación del Calvario” Por. V (295. or.).

Txomiñeneko zidorra

Kontzeptua: Bidea

Iturriak: 1982: *Txomineneko zidorratik* Ari. (69. or.)

Kokagunea: 41.49.4

Oharrak: “Erranda-enetik barrera, *Txomineneko zidorratik* gora, kalbario bidetik” Ari.

Txomiñerreka

Kontzeptua: Erreka

Iturriak: 1869: *Chomiñ-erreca* D-7-1-9

Oharrak: Txomiñeneko erreka izango da.

Txomorronea

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1857: *Chomorronea* Nomen. (42. or.)
 1873: *Chomorroenea* Reg. 12 (178. or.)
 1877: *Chomorronea* Reg. 15 (2. or.)
 1904: *Chamorroenea* Reg. 12 (179. or.)
 1945: *chomorronea* Amil. (274. or.)
 1945: *Chamorroenea* Amil. (490. or.)
 1951: *Chomorroenea* Amil. (38. or.)
 1986: *Txomorronea* Hon. 2 (2. or.)
 1986: *Txomorronea* Ond. (159. or.)

Ebakera: 1992: *Txomorroenea* Domingo Olazabal
 1992: *Txomorronea* Ignacio Manterola
 1992: *Txomorronea* Pedro Sagarzazu
 1992: *Txomorronea* Ramon Lizarraga

Kokagunea: 41.50.6

Txori

Kontzeptua: Erreka

Iturriak: 1916: *Chori* (arroyo) Geo. (743. or.)
 Oharrak: “que corre directo al mar” Geo. (743. or.).

Txoriaskoaldea

Kontzeptua: Lursaila

Iturriak: 1945: *Choriascoaldea* Amil. (219. or.)
 Oharrak: “Endanea”ko lurra, Amil.1945. Ik. *Txorinalde* fitxa.

Txoriekin

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1957: *Txoriekin* (casa) Reg. 48 (166. or.)
 Kokagunea: 41.58.2

Oharrak: “Terreno en ‘Nueva Escapachulo o San Rafael’” (1944) aipatzen dute lehenik, eta hor
 egingo dute etxea. Gero, ordea, “hoy calle Gabarrari s/n” (1987) Reg. 48.

Txorikabieta

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1790: *choricabita* Aktak 135 (164. or.)
 Oharrak: “en el parage llamado Artola hasta *choricabita*” Aktak 135. Pasaiaiko Putrekabieta ote da?

Txorinalde

Kontzeptua: Lursaila

Iturriak: 1945: *Chorinalde* Amil. (219. or.)
 Oharrak: “Endanea”ko lurra, Amil.1945. Ik. *Txoriaskoaldea* fitxa.

Txorinea

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1919: *Choriyenea* (punto) D-7-1-8

Kokagunea: 41.50.6?

Txorinea

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1836: *Chorinea* E-5-II-13-1 (21. or.)1857: *Chorienéa* Nomen. (42. or.)1888: *Choriyenea* Reg. 24 (185. or.)1891: *Choriyenea* C-5-II-10-2 (Canteras)1945: *Chori-enea* Amil. (46. or.)1986: *Txorienea* Ond. (159. or.)Ebakera: 1992: *Txorinia* Domingo Olazabal1992: *Txorinia* Lorenzo Larretxea1992: *Txoriñenea* Ignacio Manterola1992: *Txoienea* Pedro Sagarzazu1992: *Txoínia* Ramon Lizarraga

Kokagunea: 41.50.6

Txorinea, Cantera de

Kontzeptua: Harrobia

Iturriak: 1890: *Choriyenea, cantera de* C-5-II-10-2 (Canteras)1901: *Choriyenea* (cantera) C-5-II-10-2 (Canteras)

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: "cantera que se halla debajo de los pertenecidos del... caserio Choriyenea" C-5-II-10-2 (Canteras) (1891). Misirri edo Pitzenea atzean zegoena izango da.

Txorineko erreka

Kontzeptua: Erreka

Ebakera: 1992: *Txorineko erreka* Fermin Olamusu**Txorineko iturria**

Kontzeptua: Iturria

Ebakera: 1992: *Txorineko itturriya* Jose Alkiza1992: *Txorineko itturriya* Javier Galarza

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: Jose Alkizak ez ote zituen Txorrota eta hau bakartzat jotzen?

Txorineko patarra

Kontzeptua: Lekua

Ebakera: 1992: *Txorineko patarra* Domingo Olazabal1992: *Txorineko patarra* Ignacio Loinaz1992: *Txorineko patarra* Juanito Gonzalez

Kokagunea: 41.50.6

Txorineko portua

Iturriak: 1992: *Txorineko portua* Elo.

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: Ik. *Txiplaoko portua*.

Txorroerreka

Kontzeptua: Erreka

Iturriak: 1791: *Chorro erreca* Aktak 136 (55. or.)

Kokagunea: 41.41.8?

Oharrak: Ik. *Errotagain, paraje de fitxa*. Urepel izan behar duela dirudi.

Txorrondegi

Kontzeptua: Lursaila

Iturriak: 1787: *chorrondegui* (terreno concejil) Aktak 132 (23. or.)

Oharrak: “terreno concejil nombrado *chorrondegui* situado en la proximidad de la misma caseria (Garaikoetxea) entre ella y su castaña” Aktak 132. Sorgindegirekin zerikusia izango duela iruditzen zaigu. Eustakio Sagarzazuk lehen aldiz eman zigunean *Sorrondeji* esan zigula iruditu zitzaigun. Baina, hurrengoetan beti Sordindegi eman zigun. Ik. *Sorgindegiko erreka*.

Txorrota

Kontzeptua: Iturria

Iturriak: 1992: *Txorroteko iturria* Elo.

Ebakera: 1992: *Txorrota* Florencio Arrieta
 1992: *Txorrota* Faustino Gonzalez
 1992: *Txorrota* Francisco Eizagirre
 1992: *Txorrota* Ramon Unsain
 1992: *Xorrota* Pedro Sagarzazu

Kokagunea: 41.50.1

Oharrak: “Fuente junto a la carretera en *Txorrota*” Elo. “LESPY eta P. RAYMONDEK CHOURROT ematen digute marmar doan ur saltorako (ik. *Dictionnaire Béarnais*)” Pas.

Txorrota

Kontzeptua: Iturria

Ebakera: 1992: *Txorrota* Bernardo Aginagalde
 1992: *Txorrota* Ramon Balerdi
 1992: *Txorrota* Claudio Unsain
 1992: *Txorrota* Iturr(i)otx Ramon Unsain

Adierakideak: *Iturriotx*

Kokagunea: 41.50.1

Txorrota

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1992: *Txorrota* Elo.

Ebakera: 1992: *Txorrota* Daniel Arozena

- 1992: *Txorrota* Juan Etxegarai
 1992: *Txorrota* Ramon Balerdi
 1992: *Txorrota* Jose Ramon Goikoetxea

Kokagunea: 41.50.1

Oharrak: “Zona de herbales en la revuelta de la carretera de Guadalupe, despues del camping”, Bernardo Virtok eta J. M. Dagerrek emana, Elo.

Txorrota

Kontzeptua: Iturria

- Ebakera: 1992: *Txorrota* Javier Galarza
 1992: *Txorrota* Daniel Arozena
 1992: *Txorrota* Juanito Gonzalez

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: Daniel Arozenak lekuari gehiago deitu zion, iturriari baino. Gainera, Akartegikoa ere ezagutzen zuen. Txorineko erreka honetan bertan, bi iturri dira, eta batzuek goikoari deitzen diote, eta beste batzuek behekoari. Javier Galarzak behekoari deitu zion, Juanito Gonzalezek goikoari.

Txorrota

Kontzeptua: Iturria

- Iturriak: 17(?): *Chorrota*, manantial de C-5-II-8-1
 1853: *Chorrota* C-5-II-3-5
 1847: *Chorrotea* Conda. (102. or.)

- Ebakera: 1992: *Txorrota* Florencio Arrieta
 1992: *Txorrota* Miguel Ugarte
 1992: *Txorrota* Meliton Errazkin

Kokagunea: 41.49.8

Oharrak: “manantial de *Chorrota* que nace en el monte Jaizquibel” C-5-II-8-1. Hemendik hartzen omen zuten ura garaiko, erdiko eta beheko errotek. “Uritic ordu beteco bidastian Jazquibelco mendiaren oñari autsola... ceñetatic ornidutzen dan Ondarribiaco genderic gueiena” Conda. (102. or.). F. Arrietak bi Txorrota: Jaitzubian eta Akartegin. Aipuak, beharbada, beste tokietakoak dira.

Txorrota

Kontzeptua: Erreka

- Iturriak: 1916: *Churruta* (arroyo) Geo. (743. or.)
 1988: *Txorrota-erreka* Moli. (577. or.)

- Ebakera: 1992: *Txorrota* Ignacio Balerdi
 1992: *Txorrota* Fermin Olamusu

Kokagunea: 41.49.8

Oharrak: Mastiko erreka goian, eta Txorrota beherago, erreka bera, Ignacio Balerdi. Ik. *Mastiko erreka*.

Txorrota

Kontzeptua: Lekua

- Iturriak: 1676: *chorrota* E-7-I-17-17

17(?): *chorrota* D-10-1-5
 18(?): *Chorrota* C-5-II-8-1

Ebakera: 1992: *Zorrota/ Txorrota* Miguel Ugarte E.

Kokagunea: 41.49.8

Oharrak: “terminado que comun mente llaman *chorrota* que esta a la falda o mar avajo de la montaña de Jaizquivel termino y jurisdicción de fuenterravia” E-7-I-17-17. “parage concegil, donde nace el agua de los decantados molinos... los tres molinos, sin hacerse cargo de que hay otros dos, el uno perteneciente al caserío de ogallurreta de arriba y otro al de Elteuz” D-10-1-5. “que es parage concegil” C-5-II-8-1.

Txorroteko erreka

Kontzeptua: Erreka

Iturriak: 1951: *Chorroteco-erreka* H.A.03

Ebakera: 1992: *Txorroteko erreka* L.Larretxea

Kokagunea: 41.49.8

Oharrak: Ik. *Mastiko erreka*.

Txorroteko ondoa

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1930: *Chorrotecondoa*, barrio de Moli. (576. or.)
 1945: *Chorroteco ondoa* (pago o paraje) Amil. (370. or.)
 1951: *Chorroteco-(endia?)* Amil. (49. or.)
 1951: *Chorroteco-ondoa* Por. II (610. or.)

Kokagunea: 41.49.8

Oharrak: “sito en el barrio *Chorrotecondoa*, de la jurisdicción del barrio de Santiago” Moli.

Txortxipi

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1992: *Txurtxipi* Maximo Sagarzazu

Oharrak: Maximo Sagarzazuk *Atzekoaldeko plantaña* eta *Giltzari* artean jarri zuen.

Txortxipi

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1975: *Sorchipi* Por. II (523. or.)
 1986: *Sortxipi* (Itsas ertzekoa) Ond. (233. or.)
 1987: *Sortxiki/ Txurtxipi* Hon. 17 (10. or.)

Ebakera: 1992: *Txutxipi* Simon Zunzundegi
 1992: *Txutxipi* Francisco Iartzabal
 1992: *Txurtxipi* Eustaquio Sagarzazu
 1992: *Txotxipi* Gregorio Berrotaran
 1992: *Txotxipi* Miguel Ugarte
 1992: *Txortxipi* Ignacio Irastorza
 1992: *Txurtxipi* Domingo Olazabal

Kokagunea: 41.41.6

Oharrak: Ignacio Irastorzak Arribiribilleta edo Arriaundi ditugun lekuan dela esan zuen. J.San Martinek esan zigun berak "Txurtxipi" entzun izan duela beti.

Txortxipiko erreka

Kontzeptua: Erreka

Iturriak: 1929: *Sorchipiko-Erreka* H.A.08

Ebakera: 1992: Txortxipiko erreka Gregorio Berrotaran

Kokagunea: 41.41.6

Txortxipiko malda

Iturriak: 1992: *Txurtxipiko malda* Elo.

Oharrak: "Cuesta. Zona pendiente en Txurtxipi, 41-41-6", J. M. Dagerrek emana, Elo.

Txortxipiko zabala

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1986: *Txortxipiko txabala* Ond. (232. or.)

1992: *Txurtxipiko xabala* Elo.

Ebakera: 1992: *Txortxipiko txabala* Manuel Darceles

1992: *Txortxipiko txabala* Pablo Miranda

Adierakideak: *Txortxipiko zabaldegia*

Kokagunea: 41.41.6

Txortxipiko zabaldegia

Kontzeptua: Lekua

Ebakera: 1992: *Txortxipiko zabaldegia* Francisco Iartzabal

Kokagunea: 41.41.6

Oharrak: Ik. *Txortxipiko zabala*.

Txotximilko

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1990: *Txotximilko* Hon. 41 (7. or.)

Oharrak: Mourlane Mitxelena kalea, Hon. 41.

Txudure

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1848: *Chudure* C-5-II-4-2

Oharrak: "sale desde la fuente que esta al pie y remate del castañal de Ballestareana que ba a dar el dicho arroyo y agoa a los juncales... comenzando a plantar que es la tierra concejil que ba ancia la cuesta avajo derecho al agoa arroyo la que esta entre medias de los plantios que han hecho ansi mismo en tierras concejiles Maria de Caicuegui... y el pagador Martin de Careaga dueño de la caseria que llaman de *Chudure*" C-5-II-4-2. Zubietalarrea fitxan hasitako aipuaren jarraipena da.

Txugur

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1770: *Chudur* (parage) Aktak 115 (65. or.)
 1892: *Chugur* (punto) C-5-II-10-2 (Canteras)
 1988: *Sugur* (punta) Mun.40 (125. or.)
 1992: *Xur* (Txur) Elo.

Ebakera: 1992: *Txugur* Pascual Arroyo
 1992: *Txuúr* Mauricio Arocena
 1992: *Txur* Fermin Darceles
 1992: *Txuúr* Florentina Bengoetxea
 1992: *Txur* Eustaquio Sagarzazu

Kokagunea: 41.42.1/5

Oharrak: “cantera del punto denominado *Chugur* entre los caserios Peruquenea y Arzu” C-5-II-10-2 (Canteras). Felix Iridoik emana, Elo.

Txugurko

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1986: *Txurko* Ond. (232. or.)

Oharrak: Bada “Juanes de Zurco” Por. I (1573, 135. or.).

Txugurko altua

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1992: *Txuurko altua* Pascual Arroyo

Kokagunea: 41.41.4

Txugurko arraska

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1992: *Txugurko arraska* Pascual Arroyo

Txugurko buruhandi

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1992: *Txurko buruaundi* Manuel Darceles
 1992: *Txurko buruaundi* Mauricio Arozena

Adierakideak: *Buruaundi*

Kokagunea: 41.41.4

Oharrak: Txugurko sabiarri eta Martierrekako sabiarriren artean dago. Amuitzen bada beste Buruaundi bat.

Txugurko eguzkialdea

Kontzeptua: Lekua

Ebakera: 1992: *Txurko eguzkialdia* Simon Zunzundegi
 1992: *Txurko eguzkialdea* Jose Ezeiza

Kokagunea: 41.42.5

Oharrak: Ik. *Txugurko malda*.

Txugurko hegia

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1800: *chururcoegua* Aktak 143 (60. or.)

1826: *Churcoegua* C-5-II-10-2 (Incendios)

1884: *Churcoco-eguiya* (parage) Reg. 21 (218. or.)

1952: *Cruzco-eguiya* Reg. 21 (224. or.)

Kokagunea: 41.42.5

Oharrak: “desde el nombrado Errotasaingo-errec a *Churcoegua*” C-5-II-10-2 (Incendios). “desde el paraje llamado Lastaraingo-egua hasta *chururcoegua*” Aktak 143.

Txugurko kaskoa

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1992: *Xurko kaxkua* (Txurko kaxkua) Elo.

Ebakera: 1992: *Txurko kaxkua* Simon Zunzundegi

1992: *Txurko kaxkua* Faustino Gonzalez

Kokagunea: 41.42.1/5

Oharrak: “Pequeña colina sobre Maida”, J. M. Dagerrek emana, Elo. Ik. *Txugurko zabala*.

Txugurko maida

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1993: *Xugurko maida* Maximo Sagarzazu

Kokagunea: 41.41.4

Oharrak: *Fandangoarri* eta *Xugurko plantaintxiki* artean, Maximo Sagarzazu. Ik. *Maida*.

Txugurko malda

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1992: *Xurko malda* (Txurko malda) Elo.

Ebakera: 1992: *Txurko malda* Ignacio Duinat

1992: *Txurko malda* Manuel Darceles

Adierakideak: *Txugurko eguzkialdea*, *Txugurko hegia?*

Kokagunea: 41.42.5

Oharrak: “Zona pendiente”, J. M. Dagerrek emana, Elo.

Txugurko muturra

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1993: *Xugurko muturra* Maximo Sagarzazu

Kokagunea: 41.41.4

Oharrak: *Xugurko plantaintxiki* eta *Xugurko zabiarr*-ren artean, Maximo Sagarzazu.

Txugurko plantain txiki

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1993: *Xugurko plantaintxiki* Maximo Sagarzazu

Oharrak: *Xugurko maida*-ren eta *Xugurko muturra*-ren artean, Maximo Sagarzazu.

Txugurko plantain zakar

Kontzeptua: Arroka

Iturriak: 1992: *Plantain zakar (Xurko)* Elo.

Kokagunea: 41.42.1/41.41.4

Oharrak: "41-42-1", Elo.

Txugurko sabiarri

Kontzeptua: Arroka

Ebakera: 1992: *Txurko sabiarri* Simon Zunzundegi

1992: *Txuurko sabiarri* Pascual Arroyo

1993: *Xugurko zabiarrri* Maximo Sagarzazu

Kokagunea: 41.41.4

Oharrak: *Xugurko muturra* eta *Errotazain* artean, Maximo Sagarzazu.

Txugurko zabala

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1931: *Churco-Chavala* (paraje) Reg. 44 (235. or.)

1945: *Churco Zabala* Amil. (530. or.)

Ebakera: 1992: *Txurko xabalia* Ignacio Duinat

1992: *Txurko txabala* Simon Zunzundegi

1992: *Txurko txabala* Mauricio Arocena

Adierakideak: *Txugurko kaxkoa*

Kokagunea: 41.42.1/5

Txugurrerreka

Iturriak: 1986: *Zugur erreka* Ond.

Kokagunea: 41.42.1/5?

U

Uata

Kontzeptua: Itsasbazterra

Iturriak: 1986: *Ubata* (punta) Mun.38 (64. or.)
1986: *Uata* Ond. (233. or.)
1992: *Uata* (Uate) Elo.

Ebakera: 1992: *Uata* / Uatako kosta Jose Ezeiza
1992: *Uata* Mauricio Arocena
1992: *Uáta* Pascual Arroyo
1992: *Urate* / *Uate* Domingo Olazabal
1993: *Uate* Maximo Sagarzazu

Adierakideak: *Uatako kosta*, *Uatako zabala*

Kokagunea: 41.42.2

Oharrak: Felix Iridoik emana, Elo. Mauricio Arocenak zioen *Uata* deitzen zitziola San Diego eta haztegia egin zireneko lurrari. Pascual Arroyok arroka bati deitu zion. Maximo Sagarzazurentzat arroka ere bada, mendia eta dena. Mun.38ko kokapena desberdina da, eta gainera puntari deitzen diote horrela. Plano batzuetan 'Ubata agertzen da, "Instituto Hidrográfico" delakoarenak direla uste dugu.

Uatako kosta

Kontzeptua: Kosta

Ebakera: 1992: *Uata* / *Uatako kosta* Jose Ezeiza

Kokagunea: 41.42.2

Oharrak: Ik. *Aizporaundiko kosta* sarrera.

Uatako plantaina

Kontzeptua: Arroka

- Ebakera: 1992: *Uatako plantaína* Mauricio Arocena
 1993: *Uateko plantaína* Maximo Sagarzazu
- Kokagunea: 41.42.2
- Oharrak: Aurretik (Amuitzetik gatzela) *Goikoarri* eta ondoren *Martiarrri*, Maximo Sagarzazu.

Uatako zabala

- Kontzeptua: Lekua
- Ebakera: 1992: *Uatako xabalal* Uata Mauricio Arozena
- Kokagunea: 41.42.2
- Oharrak: San Diego eta haztegiak egin ziren tokia zen, Mauricio Arozenaren ustez. Ik. *Uata*.

Uatako zabala

- Kontzeptua: Arroka
- Ebakera: 1993: *Uateko xabala* Maximo Sagarzazu
- Kokagunea: 41.42.2
- Oharrak: Sarbidearen ondoren, gero *Goikoarri* eta *Uateko plantaína*, Maximo Sagarzazu.

Ubilla

- Kontzeptua: Baserria
- Iturriak: 1602: antº de *ubilla*, caseria y lagares E-7-II-3-5 (1. or.)
 1639: Anton de *Ubilla* Aktak 35 (24. or.)
 18(?): *Ubilla* C-5-II-8-1
 1832: *Ubilla* (caserios... de) Por. II (531. or.)

Ubilla

- Kontzeptua: Etxea
- Iturriak: 1559: *Ubilla*, Miguel de Bat. 1 (5. or.)
 1573: *Ubilla*, Juan Perez de Por. I (135. or.)
 1790: *Ubilla*, casa de Aktak 135 (271. or.)
 1896: *Ubilla* (casa) Font. (178. or.)
 1918: *Ubilla*, antiguo palacio de Zul. (31. or.)
 1955: *Ubilla* (casa solar) Bid. (39. or.)
- Kokagunea: Alde Zaharra
- Oharrak: "A l'extrémité de la rue Ubilla, au midi, un peu avant d'arriver devant le palacio Arsú, est une grande façade de pierre bâtie au siècle dernier; par les ouvertures mal fermées, on voit les ruines de l'intérieur". Font. "antiguo palacio de *Ubilla*, hoy en ruinas, en la calle del 'Contador Ubilla'" Zul.

Ubilla kalea

- Kontzeptua: Kalea
- Iturriak: 1584: (antº?) de *ubilla*, calle de Bat. 1 (194. or.)
 1598: Antonio de *Ubilla*, calle de Por. II (414. or.)
 1648: antonio de *Ubilla*, calle de E-7-I-10-15 (15. or.)
 1799: *Ubilla*, calle de C-5-II-7-4
 1831: *Ubilla*, Calle de E-7-I-83-10 (12. or.)

- 1862: *Ubilla* Dicc.Gui. (168. or.)
 1864: *Ubilla, calle de* Reg. 2 (189. or.)
 1896: *Ubilla, calle* Font. (175. or.)
 1907: *Ubilla, calle de* Reg. 34 (2. or.)
 1914: *Ubilla, Calle* D-1-2-8
 1945: *Ubilla* (calle) Amil. (47. or.)
 1955: *Ubilla, Calle de* Bid. (136. or.)
 1965: *Ubilla kaleko* Por. IV (1169. or.)
 1982: *Ubilla kalean* Ari. (22. or.)
 1987: *Ubilla kalea* Hon. 15 (9. or.)
- Ebakera: 1992: *Calle Ubilla* Sabino Larzabal
 1993: *Calle Ubilla* Anselmo Salaberria
 1993: *Calle Ubilla* Manuel Etxebeste
 1993: *Calle Ubilla* Maria Larrarte
 1993: *Ubilla* Juan Jose Etxebeste
 1993: *Ubillaren kalea* Maximo Sagarzazu
- Adierakideak: *Calle del Contador Ubilla, Calle de Elias*
- Kokagunea: Alde Zaharra

Ubilla, Calle Tras la de

- Kontzeptua: Kalea
 Iturriak: 1786: *Ubilla*, Del Sol - tras la de B-2-II-1-1
 Kokagunea: Alde Zaharra
 Oharrak: Ik. *Eguzki kalea*.

Ubillaoiana

- Kontzeptua: Lursaila
 Iturriak: 1831: *Ubilla-Oyana* u *Oyanchar* C-5-II-4-2
 Oharrak: Ik. *Oianzar*.

Ugarte

- Kontzeptua: Etxea
 Iturriak: 1966: *Ugarte* (casa) Por. I (367. or.)
 Ebakera: 1993: *Ugarten etxea* Juan Jose Etxebeste
 Kokagunea: Alde Zaharra
 Oharrak: “expropiaciones de las casas Toki-Ona, *Ugarte* y la pequeña que está pegante al Castillo”
 Por. I. *Ugarten etxea*-n ba omen zen beste polborin bat, Juan Jose Etxebeste.

Ugarte

- Kontzeptua: Etxea
 Iturriak: 1940: *Ugarte* (casa) Reg. 36 (128. or.)
 1951: *Ugarte* Amil. (70. or.)
 1987: *Ugarte* Hon. (9. or.)
 Kokagunea: 41.58.2

Ugartenea

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1943: *Ugarte-enea* (casa) Reg. 2 (120. or.)Ebakera: 1992: *Ugartenea* Juanito Iridoi
1992: *Ugartenia* Joaquin Salaberria

Kokagunea: 41.58.2

Oharrak: Bar Emilio inguru horretan hau bakarrik omen da zaharra. Beste Ugartenea bat Mendelun omen zen, ik. *Ugarte*.**Uhagon**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1986: *Uhagon* (etxekoei) Ond. (89. or.)Ebakera: 1993: Casa *Uhagon* Prados M.Larrarte
1993: *Uhagon* / Arizpe J,Jose Etxebeste
1993: *Uhagon* Tomas Olaskoaga
1993: *Uhagon* Francisca Susperregi

Kokagunea: Alde Zaharra

Oharrak: Ttopara lekuz aldatu zutelako haserre omen ziren etxe honetakoak. "Aurrez, Nikolas Deuna kaleko Uhagon senar-emazteen etxeko atadira Ama Birjiña ekartzen zuten" Ond. (88. or.). Pazko egunean, gauetz prozesioa egiten omen zen. Ama Birjina alde batera eta Ekisaindua bestera. Etxe honen aurrean elkarrekin topatzen zirenean, halako agur bat egiten omen zioten elkarri, biak makurtu edo egiten omen ziren. Hori omen da *Ttopara*. Gero, musika bandak Espainiako ereserkia jotzen omen zuen. Izugarritzko jaia izaten omen zen. Aspaldiko tradizioa zela diote, 60. hamarkadaren erdi aldera edo galdu zela, H. Bas. Ik. *Mugarrietanea*.**Ullanilleta**

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1775: *ullan y lleta* C-5-I-17-2Oharrak: "termino de *ullan y lleta* confinante con el camino real que hiba desde Fuenterrabia a dicho lugar de el Pasaje y el de Lezo" C-5-I-17-2.**Umako**

Kontzeptua: Itxia

Iturriak: 1851: *Umaco* C-5-II-8-2
1864: *Umaco* (cerrado) C-5-II-3-1 (14. or.)
1878: *Umaco* (cerrado) Reg. 16 (75. or.)
1911: *Umaco* Reg. 36 (247. or.)
1956: *Umaco* Reg. 16 (77. or.)

Kokagunea: 41.57.8

Oharrak: "Terreno labrante... cerrado *Umaco*... norte... canal de Urdanibia... oriente... puente de Urdanibia... poniente otro arroyo que afluye al canal mencionado" Reg. 16 (1868). "Terreno sembradio en el cerrado... *Umaco*... norte y oriente terrenos herbales... caseria Guevara-larre... sur y poniente canales del rio Urdanibia y uno de sus brazos" Reg. 19 (1881, 82. or.).

Umako

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1831: *umacol Humaco* C-5-II-1-3
1945: *Unaco* (314. or.)/ *Umaco* (402. or.) Amil.Ebakera: 1992: *Umako* Juanita Arzuaga
1992: *Umako* Francisco Arozena

Kokagunea: 41.57.8

Oharrak: “en Larregain sitio comun llamado *umaco* cerca de urdanibia” C-5-II-1-3.**Umakoaundi**

Kontzeptua: Erribera

Ebakera: 1992: *Umako aundi* Jose Ugarte
1992: *Umako aundi* Vicente Manterola

Adierakideak: 41.57.8

Oharrak: Ikastolako bidea hartuta, oraindik ere, Umakoaundi erriberaren zati bat ikus zitekeen.
Kanal batek bereizten omen zuen Umakotxikitik.**Umakoko iturria**

Kontzeptua: Iturria

Ebakera: 1992: *Umakoko iturriya* Juanita Arzuaga
1992: *Umakoko iturriya* Bixente Manterola

Kokagunea: 41.57.8

Umakotxiki

Kontzeptua: Erribera

Ebakera: 1992: *Umako txiki* Jose Ugarte
1992: *Umako txiki* Francisco Arozena
1992: *Umako txiki* Vicente Manterola

Kokagunea: 41.57.8

Oharrak: Ikastolako sarrerako zabalunea dagoen horretan omen zen, dena galdua omen da.

Unza

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1576: *unça*, geronimo de Bat. 1 (72. or.)
1625: *Unca* (casa solar) Comp. Isa. (91. or.)
1955: *Unza* (casa solar) Bid. (39. or.)Oharrak: Ik. *Sancho Untza* fitxa.**Unzenea**

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1945: *Uncenea* Amil. (287. or.)

Uraburu

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1718: *Vraburu* E-7-II-25-6 (12. or.)**Uralde**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1944: *Uralde* (casa) Reg. 45 (214. or.)1945: *Uralde* Amil. (144. or.)1986: *Uralde* Hon. 6 (11. or.)

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: "en el paraje San Isidoro, barrio de Santa Engracia" Reg. 45. "Alameda" Hon. 6.

Urano

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1987: *Urano* etxea Hon. 10 (8. or.)

Kokagunea: 41.58.2

Oharrak: Planetak etxadiko etxe bat.

Urbarrenea

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1969: *Urb(!!)arrenea* y también Navarrenea Reg. 28 (173. or.)Oharrak: "en el barrio de San Telmo" Reg. 28. Ik. *Nabarranea*.**Urbazterra**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1933: *Ur-Basterra*, Echegorri y actualmente Reg. 39 (241. or.)Ebakera: 1993: *Ur bazterra* Jose Luis LapitzAdierakideak: *Etxegorri*

Kokagunea: Portua

Urbiatxat

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1661: *Urbiachat* C-5-II-8-1Adierakideak: *Lamiarpea*

Kokagunea: 41.41.8

Oharrak: "Copia de la escritura de reconocimiento del Molino de Justiz... licencia para fabricar un molino cerca del puerto que llaman Arzu puesto llamado *Urbiachat* por otro nombre Lami-Arpea que es Conzejil" C-5-II-8-1(kopia 1717koa da). Agirre Sorondok dio Artzuko errota dela eta ez Justizkoa.**Urbina**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1590: *Urbina*, Pablo de Por. V (248. or.)
1783(?): *Urbina*, casa de C-5-II-1-1 (67. or.)

Urbiñenea

Kontzeptua: Lursaila

Iturriak: 1899: *Urbinenea* (terreno) Reg. 31 (157. or.)

Oharrak: “antes Camposenea y hoy Artiz-echea... tiene su entrada al oriente por un camino recientemente construido que arrancando desde la carretera de Irún a Fuenterrabía penetra en ella a través del terreno *Urbinenea*” Reg. 31.

Urbiñenea

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1891: *Urbinenea* o Ychola-chiqui Reg. 27 (151. or.)

Oharrak: Ik. *Itxolatxiki*.

Urbiñenea

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1639: *Urbiñenea* Aktak 35 (25. or.)
1704: *Urbiñenea* E-7-I-24-7 (29. or.)
1738: *Urbiñenea* E-7-II-31-6 (5. or.)
17(4?): *Urbiñanea* (23. or.)/ *Urmiñenea* (25. or.) C-5-II-1-1
1783: *Urbiñenea* C-5-II-1-1
1787: *Urbiñenea* B-2-II-1-1
1811: *Urbiñenea* C-5-II-1-2 (17-31. or.)
1852: *Urbiñenea* C-5-II-2-3 (10. or.)
1857: *Urbiñenea* Nomen. (44. or.)
1865: *Urbiñenea* Reg. 4 (176. or.)
1866: *Urbiñenea* Reg. 5 (116. or.)
1900: *Urbinaenea* D-6-2-1
1902: *Urbinaenea* D-6-2-1
1905: *Urbiñenea* Reg. 13 (193. or.)
1917: *Urbiñeneal urminea* C-5-I-21
1945: *Urbiñenea* Amil. (25. or.)
1986: *Urbiñenea* Ond. (155. or.)
1989: *Urbineenea* Hon. 28 (9. or.)
1991: *Urbiñenea* Hon. 44 (13. or.)

Ebakera: 1992: *Urbiñenea* Jose Agirre
1992: *Urbiñenea* Juanito Iridoi
1992: *Urbiñenia* Laureano Iza
1992: *Urbiñenia* Joaquin Salaberria
1992: *Urbillenea* Juanito Iridoi

Kokagunea: 41.58.2

Oharrak: “para el puerto de frente la casa de *Urbiñenea*” C-5-II-1-1. “sita en el parage llamado Costa, cerca del convento viejo de Capuchinos y sobre la carretera” Reg. 5 (116. or.). “en el cerrado de Santa Engracia... una casa de nueva planta... en las cercanías de *Urbiñenea*” Reg. 21 (1894). Etxe atzean iturria zuela ikusten da 1921eko komentuaeren plano batean E-4-24-7. “Varrío de Santa Engracia” B-2-II-1-1.

Urbiñenea, Canal de

Kontzeptua: Kanala

Iturriak: 1938: *Urbiñenea*, canal de los caserios de C-5-II-1-3Oharrak: Ik. *Urbiñeneko tartea* fitxa.**Urbiñenea, Cerrado de**

Kontzeptua: Itxia

Iturriak: 1874: *Orbiñenea*, cerrado o regata de C-5-II-7-4**Urbiñenea, Regata de**

Kontzeptua: Erreka

Iturriak: 1874: *Orbiñenea*, cerrado o regata de C-5-II-7-4**Urbiñeneberri**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1898: *Urbiñenea-berri* Reg. 28 (7. or.)1920: *O(U?)rbiñenea-berri* Reg. 27 (21. or.)Ebakera: 1992: *Urbiñene berri* Jose Agirre1992: *Urbiñenea berri* Juanito Iridoi

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: "barrio de Santa Engracia" Reg. 28. Hurrengo aipamenean Urbiñenea soilik agertzen da, eta badirudi etxe bera direla. Jose Agirrek bazekien horrela deitzen dela, baina Joakin Salaberriak eta biek Urbiñenea deitzen zioten Urbiñeneberri ere. Juanito Iridoik zioen Urbiñeneberri etxe multzoa dela, eta gainera, berez, *Urbillenea* omen dela.**Urbiñeneberri**

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1952: *Urbiñenea berri* (lugar) Reg. 51 (216. or.)

Oharrak: "barrio de la Costa" Reg. 51.

Urbiñeneko eskailerak

Kontzeptua: Eskailerak

Ebakera: 1992: *Urbiñeneko eskailerak* Miguel IridoiAdierakideak: *Frailetakoa mailak*

Kokagunea: 41.58.2

Urbiñeneko portua

Kontzeptua: Portua

Iturriak: 1830: *Urviñenea*, puerto de D-6-1-11854: *Urbiñenea* (puerto) C-5-II-2-3 (62. or.)Ebakera: 1993: *Urbiñeneko portua* Maximo Sagarzazu

Kokagunea: 41.58.2

Oharrak: "o sea devajo de la caseria de *Comentugain*" D-6-1-1.

Urbiñeneko tartea

Kontzeptua: Kanala

Iturriak: 1842: *Urbīnecō-tartia* D-6-1-1
1909: *Urmiñeneco tartiz* o Conventuco-trompa Reg. 35 (206. or.)

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: “Terreno dedicado a criadero de ostras y piscicultura en el canal llamado *Urmiñeneco tartiz* o Conventuco-trompa” Reg. 35 (1909). Ik. *Puente del Muelle* fitxa. Ik. *Ostrera*.**Urbizi**

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1587: *Urbicia* E-7-I-1-15
1654: Roca o *urbicia* E-7-I-12-12
1694: *Urbizia* E-7-I-21-1 (2. or.)
1897: *Urbiz* C-5-II-7-5
1926: *Urbizi* C-5-II-7-1Ebakera: 1992: *Urbixi* Ramon LizarragaAdierakideak: *Arroka*

Kokagunea: 41.50.2

Oharrak: “sitio denominado Saindua hasta el camino de Faro en el punto llamado *Urbizi*” D-6-2-2 (1932). Ramon Lizarragak ezin zuen ziurtatu, baina badirudi baserriari ez ezik inguruari ere deitzen zitzaiola horrela. Urbizitik San Telmorantz jada Arroka. Ik. *Bretxaazpia* fitxa.**Urbizi**

Kontzeptua: Harrobia

Iturriak: 1916: *Urbizi* Geo. (129. or.)**Urbizi**

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1610: *Urbicia* E-7-I-6-10
1736: *Urbissia* E-7-I-45-1 (13. or.)
1782: *Urbicia* E-7-I-78-8 (4. or.)
1787: *Urbizia* B-2-II-1-1
1857: *Urbizi* Nomen. (44. or.)
1865: *Urbici* Reg. 3 (149. or.)
1877: *Urbisi* Reg. 13 (199. or.)
1888: *Urbici* D-7-1-9
1888: *Urbisi* D-6-2-2
1905: *Urbisi*, antes *Urbicia* Reg. 20 (9. or.)
1914: *Urbici* Reg. 37 (167. or.)
1921: *Urbizi* (casa de campo) Reg. 41 (129. or.)
1927: *Urbizi* D-2-1-2
1945: *Urbizi* Amil. (121. or.)Ebakera: 1992: *Urbizi* Francisco Eizagirre
1992: *Urbixi* Ramon Lizarraga
1992: *Urbizi* Francisco Ugalde

1992: *Urbizi* Marcos Anzisar
 1992: *Urbisi* Florentino Olaskoaga

Kokagunea: 41.50.2

Oharrak: “hotel *Urbizi*” E-6-II-1-1 (1919). “del que fué caserío *Urbisi*” D-7-2-1 (1929). “*Ur-bizi*, ‘Arrupenea’ hoy finca Mendibea” Por. VIII (1987, 536. or.). Francisco Ugaldek aurretik baserria izan zela esan zigun, eta Marcos Anzisarrek baserri zaharra ezagutu zuela.

Urbiziko bihurgunea

Kontzeptua: Lekua

Ebakera: 1992: *Urbixiko rebuelta* Francisco Eizagirre

Kokagunea: 41.42.6

Urdanibiko erroia

Kontzeptua: Errioa

Iturriak: 1613: *Urdanibia* E-6-VI-6-3
 1707: *Urdanibia*, rio... de C-5-I-3-2
 1757: *Urdanibia* (rio o arroyo) C-5-I-4-2
 1799: *urdanibia* C-5-I-5-2
 1831: *Urdanibia* C-5-II-1-3
 1864: *Urdanibia* (rio) Reg. 2 (168. or.)
 1888: *Urdanibia* C-5-II-3-1 (24. or.)
 1903: *Urdanibia* D-7-2-1
 1916: *Urdanibia* (743. or.)/ *Urdanibia* o Jaizubia (80. or.) Geo.
 1944: *Urdanibia* Reg. 2 (205. or.)
 1945: *Urdanibia* Amil. (98. or.)
 1955: *Urdanibia* Bid. (4. or.)

Adierakideak: *Jaitzubiko erreka*, *Etxakolako erroia*, *Amuteko erroia*, *Amuteko kanala*, *Urdanibiko kanala*

Kokagunea: 41.57.4/8

Oharrak: “el rrio de Bidassoa nacia en españa en los montes perineos y entran del Dela juridicion De fuenterra. cinco rrios llamados endara, ybarrola, Arancate, Aranguren y *Urdanibia* con otros muchos arroyos” E-6-VI-6-3. Geo.n adar hauek dituela agertzen da: “Ugalde, Antoju o Alziko, Anderregui o Usateguieta”. “que atraviesa el robledal del antiguo señorío” Bid.

Urdanibiko kanala

Kontzeptua: Kanala

Iturriak: 1872: *Urdanibia, canal de* Reg. 11 (228. or.)
 1945: *Urdanibia, canal de* Amil. (242. or.)

Ebakera: 1992: *Canal de Urdanibia* Jose Agirre
 1992: *Urdaneiko kanalia* Victor Galarza
 1992: *Urdanibiko kanalia* Miguel Ugarte

Kokagunea: 41.57.4/41.58.1

Oharrak: Ik. *Urdanibiko erroia*.

Urdanibiko oihana

Kontzeptua: Basoa

Iturriak: 1883: *Urdanibia, bosque de* Por. I (317. or.)
1982: *Urdanibiako oianean* Ari. (94. or.)

Oharrak: Erromerietan izango da.

Urdiñenea

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1987: *Urdiñenea* Hon. 17 (19. or.)**Urederrenea**

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1864: *Urrederrenea/ Urederrenea* Reg. 2 (129. or.)**Urepel**

Kontzeptua: Erreka

Iturriak: 1992: *Urepel* Elo.Ebakera: 1992: *Urepel* Gregorio Berrotaran
1993: *Urepeleko erreka* Maximo Sagarzazu

Kokagunea: 41.41.8

Oharrak: "Iturri txiki eta epela", J. M. Dagerrek emana, Elo. Iturria ere ez omen zen, lintzura modukoa, baina Artzukoek bertan hartzen omen zuten ura. Maximo Sagarzazuk Antzongo errekarari deitu zion Urepeleko erreka. Ik. *Txorroerreka* fitxa.**Uria harresia**

Kontzeptua: Kalea

Iturriak: 1925: *Uria* Por. IV (1.273. or.)
1986: *Uria Murruan* Hon. 9 (4. or.)
1987: *Uria Harresia* Hon. 13 (9. or.)Ebakera: 1993: *Muralla Uria* Manuel Etxebeste
1993: *Muralla Uria* o General Leiva Maria Larrarte
1993: *Muralla Uria* Leiba J.J.Etxebeste

Kokagunea: Alde Zaharra

Oharrak: "*Uria Murruan*, Peña Klink dagoen horretan" Hon. 9. Uria etxea bertan dagoelako, Manuel Etxebeste. Gaur egun kale izena da.**Urianea**

Kontzeptua: Lursaila

Iturriak: 1911: *Urienea* (prado) D-9-3-1Oharrak: "entre dicho arco y el limite del prado denominado *Urienea*" D-9-3-1.**Urianea**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1869: *Urrienea* Reg. 8 (189. or.)

1869: *Urienea* Reg. 8 (193. or.)
 1905: *Urianea* Reg. 34 (102. or.)

Kokagunea: Alde Zaharra

Oharrak: “casa nº 2... calle de Plateria... norte... huerta de la casa nombrada *Urrienea*... poniente... calle de la Plateria” Reg. 8 (189. or.). “huerta entre calles Plateria y Carniceria... norte... callejuela... sur... huerta... caseria *Urienea*” Reg. 8 (193. or.). “huerta... sur calle de la Plateria y huerta casa *Urianea*, este calle Carniceria, oeste paseo de la muralla” Reg. 34 (1905).

Urianeko

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1905: *Urianako* (punto) D-7-2-1

Urianeko murrua

Kontzeptua: Lekua

Iturriak: 1880: *Urieneco murrua* (parage) Reg. 18 (160. or.)
 1888: *Uria* (murallon denominado de) Reg. 24 (204. or.)
 1890: *Urieneco-murruba* Reg. 26 (82. or.)
 1904: *Urieneco-muruba* Reg. 26 (82. or.)
 1914: *Urieneco-murrua* (... y Moseneco-murua) Reg. 18 (161. or.)
 1916: *Urianeko-murrua* (paseo) D-2-1-1
 1975: *Urianako-murrua* (hoy Paseo de Leiva) (murrua) Por. II (445. or.)/ *Muralla Uria* Por. IV (1.104. or.)
 1983: *Urianeko-Murrua* Por. VII (118. or.)
 1987: *Urianako-murrua* Por. VIII (494. or.)
 1989: *Muralla Uria* Por. (2.a) (396. or.)

Kokagunea: Alde Zaharra

Oharrak: “intramuros... este con el camino que pasa por frente de la casa denominada Urienea y por oeste mismas murallas” (160. or.), “en el paraje... *Urieneco-murrua* según las inscripciones anteriores y Moseneco-murua según la escritura... este con el camino que pasa por frente a la casa denominada Mosenea” (161. or.) Reg. 18. “tierra labrante sita en la muralla interior denominada *Urieneco-murruba*” eta sail honetan etxe berria “nº 4” Reg. 26 (1890). “casa donde nació el Sr. Sagarzazu... en *Muralla Uria*” Por. (2.a). Ik. *Uria haresia*.

Urillo

Kontzeptua: Badia

Iturriak: 1992: *Urillo* Elo.

Kokagunea: 41.41.6

Oharrak: “Itsasoko baia bat, 41-41-6”, Felix Iridoik eta Carlos Goikoetxeak emana, Elo.

Urrutia

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1908?: *Urrutia* (casa) D-3-1-1

Urtxabale

Kontzeptua: Lekua

Ebakera: 1992: *Urtxaale / Urtxále* Bixente Manterola
 Kokagunea: 41.57.8
 Oharrak: Ik. *Urtxabaleta*.

Urtxabaleta

Kontzeptua: Lekua
 Iturriak: 1833: *Urchavaleta* C-5-II-2-1 (40. or.)
 Adierakideak: *Urtxabale*
 Kokagunea: 41.57.8
 Oharrak: “se dirigia a *Urchavaleta* de Urdanibia” C-5-II-2-1.

Urtxindor

Kontzeptua: Etxea
 Iturriak: 1986: *Ur-txindor* (etxea) Hon. (7. or.)
 Oharrak: “Gabarrari kalea”.

Urzelaiazabala

Kontzeptua: Lursaila
 Iturriak: 1945: *Urcelaya Zabala* Amil. (446. or.)
 Oharrak: Amil.1945ean, zalantzakoa da ea elkarrekin doazen bi osagaiak ala bereizita. Gero, ordea, Amil.1951ean batera azaltzen dira (75. or.).

Usandizagaenea

Kontzeptua: Etxea
 Iturriak: 1937: *Usandizaga-Enea* (casa) Reg. 18 (67. or.)
 Kokagunea: Alde Zaharra
 Oharrak: “nº 18 calle de Fuentes Y Gorgot” Reg. 18.

Usoa

Kontzeptua: Etxea
 Iturriak: 1990: *Usoa* Etxea Hon. 39 (5. or.)
 Oharrak: “Sabino Arana Kaleko” Hon. 39.

Uxando

Kontzeptua: Itsasbazterra
 Iturriak: 1916: *Usando* y también Oskiroz Geo. (51. or.)
 1988: *Usando* (Oskiroz) Mun.40 (124. or.)
 1992: *Uxando* Elo.
 Ebakera: 1992: *Uxando* Mauricio Arocena
 1992: *Uxando* Antonio Darceles
 Adierakideak: *Oskiroz*

Kokagunea: 41.42.3

Oharrak: “Itsasoko punta”, Felix Iridoik emana, Elo. Ik. *Erdikopunta* eta *Amuaitz* fitxak. Ik. *Bujando* fitxa.

Uztariz

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1857: *Uztáriz* Nomen. (44. or.)

* * *

V

Valentina Salcedoren etxea

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1857: *Valentina Salcedon-echía* Nomen. (44. or.)

Oharrak: Ik. *Salzedonea*.

Venesa, Casa torre de

Kontzeptua: Dorrea

Iturriak: 1500: *Venesa*, Juan Sanchez de Por. I (134. or.)

1562: *Venesa*, amador de Bat. I (8. or.)

1606: *Venessa*, Casa Torre de E-7-I-5-30

1625: *Venesa A* (casa solar) Comp. Isa. (91. or.)

1773: *Venesa*, Andrés Obrero de Not. Hid. (222. or.)

1787: *Benesa*, Casa Torre de B-2-II-1-1

1862: *Venesa* (casa solar) Dicc.Gui. (181. or.)

1889: *Veneza*, torre de Por. I (41. or.)

1914: *Venesas*, casa de los Por. II (476. or.)

1955: *Venesa o Benesa* (casa solar) Bid. (39. or.)

Adierakideak: *Casatorre*

Kokagunea: Alde Zaharra

Oharrak: “*Casa Torre de Venesa... y de sus molinos y Herreria*” E-7-I-5-30. “Les Gaißen occupaient autrefois... l’ancien hôtel de *Torre Venesa*” Font. (162. or.). “*Casa Torre de los Venesa* (hoy casas números 28 y 30 de la Calle Mayor)” Por. I (1975, 54.or). “dos casas... dentro del... espacio que ocupaba este... solar... esquina... entre la... calle Mayor al oriente, y la... calle Fuentes y Gorgot al sur,... oeste la de Pampinot” Por. I (41. or.). *casa fuerte de Sánchez de Venesa*. Bid. (159. or.).

Verde, El

Kontzeptua: Lekua

Ebakera: 1993: *Verde/ El verde* Manuel Etxebeste
1993: *El verde* Javier Sagarzazu

Kokagunea: Alde Zaharra

Oharrak: Berdegunea omen zen, umeak jolasteko edota maindireak zabaltzeko erabiltzen zena, Manuel Etxebeste. Maria Larrartek ere erabili zuen maindireak zabaltzeko lekuak izendatzeko, baina Kalean ez zela *berde*-rik esan zigun.**Victoriano Juaristi kalea**

Kontzeptua: Kalea

Iturriak: 1987: *Victoriano Juaristi* Pad.87

Kokagunea: 41.50.7

Viena

Kontzeptua: Baserria

Iturriak: 1757: *Viena* C-5-I-4-2**Villa Ainara**

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1945: *Villa Ainara* Amil. (129. or.)
1963: *Villa Ainara* Reg. 43 (248. or.)

Oharrak: "en la calle de Irun de Fuenterrabia" Reg. 43.

Villa Alaia

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1912: *Alaya* D-9-2

Kokagunea: 41.42.6

Villa Alberto

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1914: *Villa Alberto* Reg. 37 (143. or.)
1916: *Villa Alberto* D-3-1-1
1987: *Villa Alberto* Hon. 17 (19. or.)

Kokagunea: Portua

Oharrak: "en el parage Soroeta" Reg. 37. D-3-1-1ekoa (1916) planoan agertzen da, eta Soroetan izateko, Reg. 37an dioen moduan, Soroetaren eremuak egungoak baino zabalagoak izan beharko zuten.

Villa Amatzonea

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1931: *Amachonea* (casa) Reg. 44 (228. or.)
1988: *Amatxo-enea* Hon. 18 (9. or.)

Ebakera: 1992: *Amatxonea* Faustino Gonzalez
1992: *Amatxonea* Marcos Anzisar

Kokagunea: 41.42.6

Oharrak: Funditua, beste etxe batzuk daude orain.

Villa Angelitatxo

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1897: *Villa Angelitacho* Reg. 27 (220. or.)
1906: *Angelitacho* D-9-2
1911: *villa Angelitacho* Reg. 36 (172. or.)

Kokagunea: Portua

Villa Antonia

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1945: *Villa Antonia* Amil. (187. or.)
1954: *Villa Antonia* Reg. 8 (138. or.)
1954: *Villa Antonia*, Villa Venancia, después Villa Candelas y en el día
Reg. 42 (233. or.)
1986: Villa Antonian Hon. 2 (3. or.)

Adierakideak: *Villa Venancia*, *Villa Candelas*

Kokagunea: 41.58.2

Oharrak: "Terreno juncal labrante en el cerrado Escapachulo... contiguo a la finca *Villa Antonia*"
Reg. 8. "Mendelu" Amil.1945.

Villa Añamar

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1983: *Villa Añamar* Reg. 4 (202. or.)

Kokagunea: 41.50.2

Villa Argentina

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1927: *Villa Argentina* D-10-1-5
1927: *Villa-Argentina* Reg. 42 (213. or.)
1945: *Villa Argentina* Amil. (134. or.)
1986: *Argentina etxea* Hon. 3 (7. or.)

Kokagunea: 41.58.2

Oharrak: "Mendelu" Amil.1945.

Villa Arin-arin

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1912: *Ariñ Ariñ* D-9-2
1920: *Villa Ariñ-Ariñ* Reg. 41 (2. or.)

Ebakera: 1992: *Ariñ-ariñ* Pedro Sagarzazu

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: “Villa Zortziko’ en el parage Soroeta... sur o espalda *Villa Ariñ-Ariñ*” Reg. 41. D-1-2-8koa planoan.

Villa Arrosalili

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1983: *Villa Arrosa Lili* Reg. 51 (156. or.)

Oharrak: “Avenida del General Mola, s/n en el barrio de Akartegui” Reg. 51.

Villa Arrostegei

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1987: *Arrostegei* (finca) Por. VIII (536. or.)

Ebakera: 1992: *Arrostegei billa* Marcos Anzisar

Kokagunea: 41.50.2

Oharrak: Ik. *Errazkiñenea*.

Villa Atsedén

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1945: *Atsedén* (finca) Reg. 47 (12. or.)

Villa Aurora

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1905: *Villa Aurora* Reg. 34 (26. or.)

1906: *villa Aurora* D-9-2

1941: *Villa Aurora* hoy Frontera-Enea Reg. 34 (27. or.)

Adierakideak: *Villa Fronteraenea*

Kokagunea: 41.50.6

Oharrak: “en el parage Soroeta-aundi” Reg. 34 (1905). H.A.ko bi planotan ikus daiteke villa hau eta beste mordoa non ziren.

Villa Aurresku

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1961: *Aurresku* (casa) Reg. 41 (204. or.)

Villa Bidasoa

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1901: Chalet *Bidasoa* Reg. 32 (215. or.)

1906: villa *Bidasoa* D-9-2

Oharrak: D-2-1-3an non zen ikus daiteke (1929).

Villa Boringuen

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1951: *Villa Boringu(?)en* Reg. 44 (4. or.)

Villa Candelas

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1927: *Villa Candelas* / Villa Venancia Reg. 33 (196. or.)
 1931: *Villa Candelas* Reg. 8 (138. or.)
 1954: *Villa Candelas* y en el día Villa Antonia, Villa Venancia después Reg. 42 (233. or.)

Kokagunea: 41.58.2

Oharrak: "Terreno juncal labrante en el cerrado Escapachulo... contiguo a la finca *Villa Candalas* de la cual depende" Reg. 8. "Villa Venancia, actualmente *Villa Candelas*" Reg. 33 (1927). Ik. *Villa Antonia*.

Villa Carlos Quinto

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1989: *Villa Carlos* VHon. 30 (11. or.)

Villa Carmen

Kontzeptua: Etxea

Iturriak: 1902: *Villa Carmen* Reg. 33 (61. or.)
 1906: *Villa Carmen* D-9-2

Kokagunea: Portua

Oharrak: "manzana nº 3 ensanche de la Marina" Reg. 33. Villa Guerraren "este o espalda"n (Reg. 35, 1909, 220. or.). Ik. *Irailaren Zazpiko kalea*.

Villa Carolina

